ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2002ko maiatzaren 17a/X. urtea/405. zkia

• BERBETAN XABIER ARZALLUZ EAJ-PNVko LEHENDAKARIA
• GEHIGARRIA GAZTIA NAIZ BARREN • KULTURA NIKOLAS BERBEL ARGAZKILARIA

# BARREN
ASTEKARIA



## Mazzantini zenzenzale elkartea:
# “Zuentzat !”

ZEZENAREN ADARRAK URRUTIAN EDARRAK (esaera zaharra)

1 1 1 1 1 11
GOKI ERRE FOR MAK
111 11111 111 1111111M ©112ailz

09-1




Olaso Poligonoa, 15 - 68 pabilioia
Te1.: 943 74 28 80 943 74 42 23 - 943 74 46 4
Faxa: 943 74 45 87
9nta7n ELGOIRAR



## Pin Fortuin

Hedabideek Pin Fortuin zenaren alderdi Holandarra, eskuindarra, arrazista eta xenofoboa dela diote, guk geuk ere etxea koipetan igeri daukagula "ahaztuz". Zer izen merezi du bestela, batzuen botoa eta besteen pasibotasunaren onespenaz martxan jarri duten sorgin ehiza politikoek? Zer izen, XIX. mendeko langileen egoerara itzuli nahi gaituen langabeziaren erreformak? Zer izen, Nafarroako euskararen legeak? Itoitzeko urtegiaren auziak? Unibertsitateko legearen aldaketak? Preso politikoen dispertsioak? Demokrata? Populista? Ezkertiarra?

Ez dezazuela pentsa partidu politikoek egoera hau aldatuko dutenik. Hedabideei begira bizi gara, politikariek diotenari so, gure bihotzak dioenari entzungor. Ahaztu egiten dugu benetako indarra gugan dagoela: elkartasuna, langileen eskubideak, benetako demokrazia... herri tarrak mobilizatzen garen heinean gauzatuko dira. Hain da indartsua hedabideen indarra, ezen ahaztu egiten dugula politikarien jarrera herritarren mobilizazioek baldintZatzen duela.

Holanda, Frantzia, Euskal Herria edo Espainiako eskuineko politikak aldatzea gure esku dago, eta alde horretatik, gizatalde, sindikatu eta eragileek martxan jartzen dituzten ekimenak txalotu eta jarrera aktiboaz lagundu behar ditugu: Ez etxean gelditu, bestela, euskaldunok ere, jai daukagu!

"Espainiako eskuineko politk aldatzea gure esku dago"

Lorea Perez de Albeniz



## Amerikarrak baserrietan

Azken urte hauetan gure telebistan etorkinen gaineko makina bat gertaera triste ari gara ikusten. Jende askok miseria eta txirotasunetik ihesi, penintsula aldera jotzen du bizimodu hobearen bila, Gaur egun munduko leku askotatik abiatzen dira Espainiako estatura etorkinak: Afrika eta Ameriketatik gehienak. Batzuek lortzen dute euren helburua; beste hatzuek. ostera, erdibidean galtzen dute bizia, edo iritsi ondoren, atzera euren herrialdeetara itzultzen dituzte. Ibilera negargarria benetan!

Joan den domeka honetan, einaztearekin Tolosara nindoala, auto stop egiten ziharduen Ecuadorko mutil gazte bat ezagutzeko zoria izan genuen. Berriketaldi patxadatsuan azaldu zigun hainbat gauza jakingarri. Euren familian zazpi seme-alaba eta gurasoak ei dira; lursail bat eta hemezortzi bat abelburu ere badauzkatela, baina lana izan arren, han gutxi irabazten dela. Honela ba, apur bat harritu ere egin nintzen, bera Azpeiti aldeko sagardotegi batean sagasti gazte eder bat zaindu eta baserriko lanen ardura zeukala esan zigunean. Anaia bat Asteasuko baserri batean morroi dagoela ere esan zigun. Ganaduarekin lanordu asko eta lotura dezentea eduki arren soldata ona ja,so eta oso gustura bizi dela. Beste hiru anaia, berriz, Madrilen bizi ei dira.

Berak zioenez, Euskal Herrian jendea ondo bizi da. Lehen, euskal baserrietatik Ameriketara joaten zen jendea antzantzara, orain handik datoz hemengo lanak egitera. Hau da mundua, hau!

"Lehen, euskal baserrietatik AmerWetara joaten zen jendea artzantzapa, orain handik datoz hemengo lanak egitera"

Juan Mari Elustondo

'exak .................... 5
1110tZ MotZ ................................................ 6
gehigarria ..........................
kiRolAk ........................................ 20
aGenda ........................................

2002-V-17

# Urruzunoren begi ezkutua

## Mendekua



Behin, eskale batek amets egin zuen. Amets egin zuen galtzeko ezer gutxi zeukaten eskale guztiak bildu eta hiriko merkatal zentro handi eta burgesenean sartuko zirela. Larruzko beroki eta kapela garestienak jantziko zituztela, enplegatu lelotuen begiradapean. Eta horrenbeste eskale izango zirela eta hain handia harridura, ezen zentroko zaindariak eta poliziak ere ezer gutxi egiteko gai izango zirela. Egun batez behintzat, beti muturren aurrean izan zituzten gauza ukiezin haiek guztiak, eskura izango zituztela.

Eskale haren ametsa, Bukowskiren ipuin batean errealitate bihurtu zen eta "Madarikatuen mendekua" deitu zion ipuinari. Gaurko munduan, galtzeko ezer gutxi daukaten pertsona asko daude estatuen mugak zeharkatu nahiz. Merezi dugun mendekua ote?

**IÑIGO OTAÑO**

## 1991K0 MAIATAREN 9A GOGOAN

Nola pasatzen diren urtealc. 11 urte jada Maalako gaztetxea bota zutenetik; hots, Maala hil zutenetik. Zenbat herritar gazteren etxe izan ote zen garai hartan, zenbat ekintzen gune, zenbat arazoren irtenbide... gazteen borrokaren ispilu.

Madarikatua eraitsi zuten eguna, Maiatzaren 9a, zoritxarrez urtero gogoratu beharrekoa, udalak gazteak kale gorrian utzi zituenekoa. Harrezkero ere zenbat negar, zenbat neke, zenbat izerdi eta zenbat gauza egin dituen herriko gazteriak. Gaztetxe 1, gaztetxe 2, 3 gaztetxe egon dira Elgoibarren harrezkero, gazteon borroka eta beharren froga garbiak direnak. Itxura guztien arahera egungo gaztetxeak ere, azkena gertu du. Zabalik dirauen urte gutxi hauetan ehundaka ekintzen gune eta iturburu da, milaka gazteren elkartoki. Herri honetako gazteoi aukera ezberdinak ematen saiatzen da, herriari bizia ematen, gazteon arazoez arduratzen. Hau ere hil behar dute zoritxarrez, ez diote heriotz eguna jarri oraindik baina azken amasetan dago. Udalak hitzeman zuen bezala, beste baten jaiotza ekarri beharko luke honen heriotzak, orain gauden eta atzetik datozen gazteon kargu egingo dena.

Duela I I urte gertatutakoa dabilkigu buruan bueltaka maiatzaren 10 honetan. Elgoibarko gazteak umezurtz geratu zirenekoa eta egia esan oraingo gazteok ez dakigu zergatik, baina badugu kezka bat.

EZ DADILA BERRIZ BERDINA GERTATU

Elgoibarko Gazte Asanbladada

ASTEKARIA
BaRRen

Natarroa enparantza, 2
201370 ELGO1BAR
=`• 943 74 41 12
Publizitataa:
a- 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Helbide intormatikoa:
www.topagunea,com/barren
AnorrAnAraiLEA
Elgoibarko Izarra

LAGLINTZAILEA Elgoibarko Udala ZaZEraaMa Jon fnnkl Lasa KAzEnVemt trati Agirrenzaldegi, AserOthea Pusurrmak Amaia Erkizia MAKETATTALE4 Iker DiegoADIIINISTRAZOA Amaia Frodrgez GERETREA Jon Peli Unguen KOLABORATLAILEAN Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello MOndzabal, Juan V. Elastondo, Aurto Ansuategi, Edurne BilbaG, GolzonAniete, Loma Perez da Albeniz, Jolon Marlinez, Montse Arregi, Joanito Gorosliza, knhoaAndonegt, Kokoe K.E. ela Urruzuno AZALEKO ESAERA ZAIIARRA Gotzon Garateren Iburukk Ihmaatkreora GertuKoop, E. TFRASA 4,025 ale LEGE GORDALLUA SS.1.038/92 **ISSN** 1139-1855

ELGOIBARK0 IZARKA
11 ;[1111E1

*Elgodrarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aidizkaria.*

rr
ku txa
1DANOBAT .aumas HERRAVIENVA
L"GOIT1 GRUPO DANCISAT
ESTAFIA

BARRENels eidu lzrega,n1;artzen IRITZIA elo ESWITWIdde

## KEXAK

♦ Plazan kotxe gehiegi ibili eta aparkatzen dira. Ez dago lekurik umeekin egoteko eta arriskutsua da jolasean ari direnean hainbeste auto inguruan ibiltzea. Goizetan egoera larriagoa izaten da. V






* Leku Eder parkean txakur kaka mordoa egoten da. Umeak egoten diren leku bat izanik, zerbait egin beharko litzateke. Bertan egoten den hainbat jendek firmak bildu eta udalera eraman zituen bonen inguruan kexatzeko. Jasotako erantzuna: parkea dagoen bezala ondo dagoela. Txakur jabeek ere pentsatu beharko lukete zer egiten ari diren txakurrak kaka egitera parkera ateratzen dituztenean.

## IIIDE1111

* Asteburuetan liburutegia itxi egiten da. Orain gainera azterketak datoz. Planteatu al da Udaletxean liburutegia jai egunetan zabaltzea? Jende asko Elgoibartik Eibarreko liburutegira joaten da ikastera asteburuetan.

* Ikastolak antolatutako 9. HAUR KROSean, lehiakortasun handiegia somatu zen ikasleen artean. Zergatik ez dira horrenbesteko agresibitate gabe hezten umeak?

## TXALOAK

♦ Baserritar batek deitu du Barrenera eta oso pozik dagoela adierazi, azkenean Barren aldizkaria ostiraletan jasotzen dutelako, eta ez lehen bezala hiru eguneko atzerapenarekin.

Barrak, Birrak eta Barreak




Atal honetan kexa, txalo edo galdera argitaratzeko bidali posta elektronikoa, izena eta zure telefono zenbaki zehaztuz, barren@ topagunea.com, helbidera.

# Trinitateko Aste Nagusiaren barruan, zapatuany maiatzak 18, zezenketa izango da Xixilion plazany 17:30etan

## Mazzantini Zezenzale Elkartea haziz doa, urtetik urtera

Pasa den urtean ospatu zuten Luis Mazzantini Egia toreatzailea hil zeneko 75. urteurrena. Plaza Txikiko zezenplazan antolatu zuten zezenketa komikaa eta jendeak ondo erantzungo zuela espero zuten. Pasa den urtera arte ez zen zezenketarik egin 1949tik.

Aurten ere antzerako zerbait egitea pentsatzen ari zirela, hara non, Udalaren laguntza lortu eta zezenplaza portatila alokatu duten Deba eta Elgoibarko toreatzaileek euren dohaiak aurrez aurre erakuts ditzaten. Eta erakutsi beharko dituzte, bai, Xixilion plazan kokatu duten zezenplazak 1.500 lagunentzako tokia baitauka. Kontuan izan behar da, pasa den ekitaldian 1000 lagun inguru hurbildu zirela zezenketa ikustera.



*Manolak eta toreatzaileak festa handiaren zain*

Aurten, arratsaldeko 17:00etan kalejira egingo da eta ondoren 17:30ean, zezenketa. Toreatzaile ausartak, honakoak: Elgoibartik, Jose Luis Arana "Tatti", Angel Sanz "Mekano" eta Iilaki Alonso "Txato Garate". Debatik: Aiert Alba "Tormento Buru Zuri" Julen Badiola "Txikito de Aldatzekua" eta Jon Esnaola "Tariña"

Zezenak, Lasturko "Saka" abeltzainarenak izango dira. Zezenez gain, Zaldi Munta ikusi ahal izango da, Iiligo Arrizabalaga zaldidunaren eskutik, hala nola Alfaroko "La bañera torera" errekortadoreen erakustaldia.

# Ekainaren 5ean egingo dute Urruzunoko babes ofizialeko etxebizitzen zozketa

## 35 urtez azpikoentzako izango dira 84 etxe

Joan den martxoan egin zuten Elgoibarren babes sozialeko alokairuko 40 etxebizitzaren zozketa. Zortedunak oraindik konfirmazioaren zai badaude ere, oraingoan beste batzuen txanda da. Izan ere, babes ofizialeko 120 etxebizitza zozketatuko dituzte ekainaren 5ean Kiroldegian. Oraindik ordua zehazteke dago, baina etxebizitza sozialen inguruko zalantzarik izanez gero, argitzeko Etxebidera dei dezakezue (Telefonoa: 012).

Urruzunon eraikitzen ari diren etxe hauek erosi egin beharko dituzte zozketan zortedun direnek.



*Etxebizitzarik txikienek 60 m2 izango dituzte eta handienek, berriz, 90 m2.*

### 120 etxe

Guztira 120 etxe jarriko dituzte salgai. Horietatik 84 etxe 35 urtez azpiko jendearentzat izango dira. 6 elbarrituentzat eta beste etxe bat adin txikiko haurrak dituen guraso bakarreko familia batentzat. Gainontzeko etxeak aurreko baldintzak betetzen ez dituztenen eskura jarriko dira.

Etxebidetik adierazi digutenez, etxebizitzarik txikienek 60 m2 —ko neurria izango dute eta handienek, berriz, 90 m2. Beraz, eskaria egin zuten herritarrek zozketaren zai egon beharko dute hainbeste itxarotako etxebizitza eskuratzeko.

# Agme-ko Pedro Agirregomezkortak, Gipuzkoako urteko enpresari onenaren saria jaso du

## Enpresa ikuspegiaz gain, gizarte eta kultura arloko lana ere azpimarratu ditu Gipuzkoako Bazkundeak

Agme enpresako zuzendari gerentea den Pedro Agirregomezkorta elgoibartarra izendatu du urteko enpresari onena Gipuzkoako Merkataritza, Industria eta Itsasketa Bazkundeak, Industria Sarien X. edizioan. Honela, bere karrera saritu nahi izan dute. Izan ere, familiako enpresa izatetik gorengo mailara igaro da Agme eta horren adierazle da azken ekitaldian fakturazioa %39 igo dela, langile kopurua %19 eta exportazioan ere nabarmen egin du gora. Bestalde, teknologia berriek ere pisu handia izan dute beti Erreminta Makinaren alorreko enpresa honetan. Gainera, Gipuzkoako Bazkundetik adierazi digutenez,



Agirregomezkortaren enpresa ikuspegiaz gain, gizarte eta kultura arloko lana ere azpimarratzekoak dira.

**Bi** sari

Zumarragako Etxeberri jatetxean egin zen sari banaketa eta 300 enpresari elkartu ziren bertan. Hizlari moduan, Estatu Batuetan Espainiako enbaxadorea den Javier Ruperez eta Gipuzkoako Bazkundeko presidentea, Jose Maria Etxarri, aritu ziren. Bestalde gogoratu behar da, Pedro Agirregomezkortak orain dela bi hilabete inguru Korta saria jaso zuela eta orduan ere bere ibilbide profesionala saritu zuten. Urte baten buruan horrelako bi sari garrantzitsu jasotzea pozteko modukoa da gero. Zorionak bada Pedro Agirregomezkortari.

## Urasandiko eskailera mekanikoak jartzeko 4 hilabete beharko dituzte

Joan den astean hasi zituzten Urasandin eskailera mekanikoak jartzeko lanak. Bikani S.A. enpresa ari da eraikuntza eta kolokazio lanetan eta Udaletxean esan digutenez, 4 hilabete inguru pasako dira herritarrak eskailera mekanikoetan ibiltzeko aukera izan artean. Oraingoz 4 eskailera zati jarriko dituzte Urasandin, guztira 6 zati badira ere. Eskailerak kalean egongo direla kontuan hartuta altzairu herdoilgaitza izango da erabiliko duten materiala. Lanen kostuari dagokionez, obra zibila 50 milioi pezetakoa izango da eta eskailerak, hau da, mekanismoa, 130 milioi pezeta ingurukoa.





## Danokat taldeak IMHko Heziketa Zikloetako 5 ikasle saritu ditu

Makina Erremintaren Institutuak eta Danobatek, Heziketa Zikloetako 5 ikasle onenak saritu ditu. IMH eta Danobat Taldearen hitzarmenaren bidez, espezialitate bakoitzeko ikasle azkarrenak 1.502,53 euroko saria eskuratuko du ikasketa poltsa moduan. Hau da, diru kopuru honekin ekipamendu informatikoa erosi edo atzerrian ikastaldia egin ahal izango dute. Aipagarria da sarituetarik 2 neska elgoibartarrak direla, kontuan izanda ikasle guztien %10 direla neskak. Hautaketa Gela Taldeko irakasle arduradunek egin dute eta hauek dira ikasle sarituak: Laura Mujika eta Mikel Salegi (Produkzio Bidezko Mekanizazioa), Nerea Sierra (Proiekto Mekanikoen Garapena), Aritz Alustiza (Industria Ekipoen Mantenimendua) eta Joseba Andoni Obieta (Mekanizazioa).

# rrotz

## Debabarreneko herriek, teknologia herriel eta enplegua sortzeari buruzko proiektu europear batean hartu dute parte

Teknologia berriak enpleguaren sustapenerako erabiltzea helburutzat duen proiektu europear batean parte hartzen ari dira Debabarreneko udalerriak Debegesaren bitartez. Proiektuak 3 milioi eurotik gorako aurrekontua du guztira eta Debegesaz gain beste erakunde batzuk ere hartu dute parte: Bizkaia eta Arabako Aldundiak, Merkataritza Ganberak, BBK, Caritas eta Sartu esaterako. ACCENT izena du proiektuak eta lanean ekintzaile direnei aholkularitza eta laguntza zerbitzuak eskaintzea da proiektuko bultzatzaileen asmoa.

## EigoihartaProk 339 euro ordaindu genituen 2000 urtean zergetan

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza sailak, Gipuzkoarrok 2000 urtean ordaindu genituen presio fiskalei buruzko datuak kaleratu ditu. Hau da, ondasun higiezinen zergak, aktibitate ekonornikoenak, eraikuntzakoak eta zakar, ur eta estolderia zergak, hain zuzen ere. Datu horien arabera elgoibartarrok 339 euro ordaindu genituen eta Gipuzkoako bataz bestekoa 400 eurotan dago. Iaz Elgoibarko Udalak herritar bakoitzarengandik 62.764 pezeta jaso zituen; beraz, zerga kopurua igo egin zen urte batetik bestera.

## Ion Garatek 6 hitaheteko zigorraren etena eskatuko du

1999ko abenduan Eibarko Isasi kalean euskal presoen Euskal Herriratzea eskatuz, solidarioak kateatu egin ziren. Tartean zen Ion Garate Guenaga gazte elgoibartarra ere. Ekintza horretan parte hartzeagatik epaitu eta 6 hilabeteko zigorra ezarri zioten Ion Garateri. Berak errekurtsoa aurkeztu zuen arren, ez diote onartu; baina zigorra 6 hilabetetik beherakoa denean ez dauka bete beharrik. Horretarako zigorraren etena eskatu du. Bere esanetan, "protesta presoen alde, solidario moduan egin genuelako jarri digute zigorra".

## Zuberoa Garatzen egitasmoari aportazioak

Zuberoa garatzen egitasmoaren barruan, beste ekintza batzuen artean, kontu korrente zenbaki bat zabaldu da, nahi duenak diruz egin dezan aportazioa.
Zenbakia: 3035.0007.25.007.102527-4

## "Deba Iharretik Euskararen Herrira" liburua aurkeztu dute

Joan den martitzenean, hilaren 14an, aurkeztu zuten Eibarren Deba Ibarretik Euskararen Herrira liburua. Badihardugu Euskara Elkarteak kaleratu du liburu hau, Deba Ibarreko udalen dirulaguntzarekin. Liburuak bi zati ditu: Batetik euskalkia non, noiz, nola eta zergatik erabili behar dugun azaitzen du Koldo Zuazok. Bestetik Eskualdeko euskalkiaren ezaugarri fonetikoak, morfologikoak, sintaktikoak eta hiztegia bildu dituzte Deba Ibarreko 50 euskalzalek. Badihardugu Euskara Elkartearen helburua, Deba Ibarreko euskaltzaleak batzea eta herrietako hizkerak ikertzea eta bultzatzea da. Ikerketa horren emaitzetariko bat da, hain zuzen ere, Deba Ibarretik Euskararen Herrira liburua.



## Errosarioko Amabirjinaren irudia berritu du Eskuz taldeko Mertxe Solarrek

Urtero, Errosarioko Amabirjinaren Eguna iritsi ahala, kaleko hainbat bizilagunek amabirjinaren irudia txukuntzeko lana hartu ohi dute. Iaz lan horretan ari zirela pintatzeko beharra ikusi zuten eta horrela egin dute. Berritze lanak Eskuz taldeko Mertxe Solarrek egin ditu. Berak esan digunez, "Udaleko Kultura Sallekoek esan ziguten Errosario kalekoek amabirginaren soinekoa margotu nahi zutela, arrosa zela eta zuriz pintatzea zen beraien asmoa. Baina irudia ekarri zigutenean soinekoak ezezik guztiak ere martzeko beharra zuela ikusi genuen. Taldekoak gustura geratu gara egindako lanarekin eta amabirgina polita utzi dudala iruditzen zait". Aurrez, orain dela 4 edo 5 urte, Donostian berritu zuten; izan ere, irudia sitsak janda zegoen. Errosario kaleko jaien komisioko kideek eskerrak eman nahi dizkiete Eskuz taldekoei eta Udalekoei.



## Gero eta handiagoa da auto kopurua herri guztietan

# Zer egin daiteke Elgoibarren trafiko arazoak konpontzeko?



### CARLOS VILA
26 **urte, torneroa**

Herria inguratuko lukeen bariante bat, Eibarren egin duten moduan. Errotondak ere faltan botatzen ditut, gutxienez 3 egingo nituzke. Herritik Bilbo alderantz ateratzeko asko arriskatu behar da, autoak oso bizkor baitatoz.



### IBON TARRO
**29 urte, saltzailea**

Sarrera irteeretan arazo larria dago. Bestalde, alde zaharra autoentzat itxita egotea normala da, baina zamalanetarako gune bakarra dago eta beti kotxeak daude. Beste bat jarri beharko lukete eta garraiolari eta antzerakoentzat izan dadila zaindu.



### MIREN NOGUEIRO
35 **urte, ATS-a**

Ordu puntetan trafiko handixa egoten da eta semaforo batzuk jarriko nitxuzke, igual. Barianterik ez dot nahi. Soluzio errezena da, baina Elgoibar guztia apurtuko leuke Eibarren ein daban moduan.



### MARI CARMEN COVARRUBIAS
**42 urte, etxekoandrea**

Batez ere aparkatzeko orduan ikusten dut arazorik larriena eta are gehiago zapatuetan. Kanpotik datozenei herrira autoarekin sartzea debekatu beharko liekete zapatuetan.



### JOSE ANTONIO RWZ
**26 urte, Udaltzaina**

Arazoa badago, baina soluziorik ez daukat, oso zaila baita. Gu saiatzen gara ahal doguna egiten, baina zaila da. Errotondek arazoa konponduko duten? ez dakit, ikusi egin behar.



### KONTHI IRIONDO
**43 urte, etxekoandrea**

Errotonda batzuek eginez sarrera-irteeren arazoa zertxobait hobetuko litzatekeela uste dut. Orain dagoen moduan denbora asko galtzen da.

lebsizon ls cbt.p.
Olaso industrialdea. Olasape, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAILERRA

Cordon,Vilarchao, c. b.
IDEKORAZICIA
MOKETAK, KORTX0 BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKAIAK, GOTELE ERROTU1AZ1OA, PINTURA OROKORRA.
San Roke , 7 behea. Tel 943 74 28 74-74 05 70

## Xabier Arzalluz:

# "Arnalcoren aitak eta nire aitak elkarrekin lan ecin zuten Sigman

*Pasa den barixakuan, hilaren 10ean, Euskal Herrian oso ezaguna den pertsonaia bat izan genuen Elgoibarren, Xabier Arzalluz, EAJ-PNVko presidentea, hain zuzen ere. E1goibarko EAJren gonbidapenari erantzunez etorri zen Azkoitian jaiotako politikoa. Jarraitzailez gainezka zegoen Kultur Ebcean eskaini zuen hitzaldia. Gaur egun pil-pilean dauden hainbat gai ikutu zituen Arzalluzek eta guk ere zenbalt gairi buruz duen iritzia eskatzeko aprobetxatu genuen.*

-Jakin al daiteke zertara etorri zaren Elgoibarrera?
Astero joaten naiz batzokiren batera egoera politikoa azaldu, jendea informatu eta martxan jartzera. Organizazio baten funtzionamendu onerako funtsezkoa dela iruditzen zait.

-Arzalluz jainkoarekin konparatu izan dute behin baino gehiagotan. Hain handia al zara? Ez, horixe. Mundu honetan gauzak pertsonalizatzeko joera dugulako gertatzen da hori. Madriletik, esaterako, jendearen gorrotoa pertsona bakarrean pertsonalizatzea bilatzen dute organizazio baten aurka egiteko. Teknika oso soila da. Ondorioz, nire inguruko jendeak ere laguntza pertsonala eskaintzen dit. Dialektika bat da azken finean.

-PNVko baseak "benetako euskaldunak" omen dira, baina politikook asko galtzen omen duzue? Batzuek diotena da hori, batez ere HBkoek. Ez zaie baseak gaitzestea komeni, azkenean eurekin izatea espero baitute. Beraz, buruan kontzentratzen dituzte kritikak eta gainontzekoak gisajo on batzuk direla esan. Argumentu kaskarra da, baina nahiko diplomatikoa. Baseak tontotzat hartzen dituzte, hala ere, buru kaskarren menpe daudela esanez.

Emaiguzu zure iritzia. Motz-motz:

■ Batasunaren ilegalizazioa: Disparate bat da eta gainera antidemokratikoa. Partidu politikoen legea, lege bat baino gehiago Aznar eta Mayor Orejak jendea kamelatuta edukitzeko sortu duten gauza bat da. Lege batek orokorra izan behar du eta ez helburu zehatz baterako sortua, kasu honetan Batasunaren ilegalizazioa.

■ Bizkartzainak: Urte txar askoak pasatakoa naiz inor ondoan eduki gabe, baina Ardantzak jarri zizkidanetik ohitu egin naiz. Politikoek bizkartzainak eraman beharra oso seinale txarra da. Herriaren borondatea, indarrez deuzestu nahi baldin badute, herriaren kontra ari dira

■ Elkarri
Elkarritik gehien miresten dudana, pake bideak bilatzeko daukaten iraunkortasuna da. Aguante handia daukate eta ez da erreza.

■ PNV eta PSE eskutik helduta
Ez dut uste denbora askoan gertatuko denik. Batez ere PPk lepotik helduta dauzkalako. Ez daukate mobitzeko askatasunik.

■ Jaime Mayor Oreja
Ziniko bat eta karrerista bat izan da. Karrera politikoan aurrera egiteko Euskal gatazkan topatu du "filoia"; ETA eta nazionalismoa dira bere argumentu bakarrak. Kontu hauek, ordea, oso ondo saltzen dira Espainian. Aznarren politikaren atzean bera dago.

■ Ibarretxe
Izugarrizko ahaleginak egin nituen bera lehendakari izateko



baietza lortu arte. Kontzertu ekonomikoaren negoziaketa batzuetan ezagutu nuen Madrilen. Han ikusi nuen nolako tipoa den. Ideiak oso argi ditu, ausarta eta espartanoa da. Ez dut uste hobeagorik daukagunik ofizio honetarako eta asko irautea nahi nuke.

■ Eusko Alkartasuna
Nahiko galduta dabiz. "Sin ti no vivo y contigo me muero" erderazko esamoldeak ondo azaltzen du EAk daukan bikoiztasuna. Beraien burua definitzeko PNV hartzen dute erreferentetzat, eta hori ez da ona. Eta bestetik, PNVrekin joaten bada desagertuko diren beldur dira. Flurrengo Udal hauteskundeetan gurekin aurkeztea nahiko nuke.

■ 500 preso politiko
Bakarrik? Nik uste gehiago ere izango direla Frantziakoak eta kontatuta. Han barruan daudenek bide hori hartu zuten, baina senideentzat eguneroko tragedia da. Espainiako gobernuak familiak zigortzen ditu presoen sakabanaketarekin. Ahaleginak egin ditugu, baina tipo honekin (Aznar) ez dago zereginik.

-Badakizu Arnaldo Otegi elgoibartarra dela. Zer moduz konpontzen zara berarekin? Arnaldaroren aitak eta nire aitak Sigman lan egin zuten. Ondo konpontzen naiz. Denbora baten hartu eman nahiko estuak eduki genituen. Arnaldok bere ideiak dauzka, baina hitz egiteko tipo atsegina da. Azken azkenian uste baino alkarrengandik hurbilago gaudela uste dut.

-Noiz arte izango dugu Xabier politikan? "Lanak eginda" erretiratuko al zara? Urte eta erdi falta zait kargua lagatzeko, baina politikan hil arte jarraituko dut (abuztuan 70 urte betetzen ditu). Erretiratzen naizenean izugarrizko lasaitasuna sentituko dut. Duela 4 urte lagatzeko borondatea nuen, baina Ardanza eta ni moduko bi erreferente kolpe batez ezin zirela galdu izan zen jarri zidaten argumentua. Gero, gauza asko dauzkat egiteko. Memoriarik ez dut idatziko, gehienetan gezurrak izaten baitira, baina une historikoetan zer eta zergatik egin genuen ondorengoentzat idatzita lagatzea da nire asmoa. Protagonistek historia idatzi ezean, edozeinek egiteko arriskua dago.

105U ZUbiaUrrEELKARRIZKETA FundizioaGAIA MAITE LINARETLOTSAGABE



# Gaztia Barren

GAZTEA NAIZ

G A Z T E E G E H I T G A R R I A 2002ko martxoaren 17a X urtea, 405. zkia

## Fundizioko musikariak

# Espazio berrien bila

## "HUGHES-TURNER PROJECT j

GLENN HUGHES ETA JOE LYNN TURNER

ockaren historiak eman dituen abesiari onentsuenak elira Joe Lynn Turner eta Glenn Hughes. Garai ezberdinetan bada ere. biak izan ziren Deep Purple talde handiko partaideak. Glenn Hughes baxujoie moduan sartu zen Ritchie Blackmore-en taidean, orduan David Coverdate zen taideko tehen abeslaria. Hata eta guztiz ere. kantu askotan sartu zuen ahotsa Coverdale-ekin batera. Joe I..,ynn Turner. berriz. Biackmore maisuaren bi untzi nagusietan izan zen, Deep Purple eta Rainbow taideetan. Proiektu berri honek estraineko aldiz biltzen ditu bi kantariak disko oso berean.

Adinarekin abeslari askok eta askok ez tlio gazte denborako mailari eusten. Bi hauek. ordea, inoiz haino hobeto daudela dirudi. Pentsa ezazue, hortaz, nolakoa izan daitekeen bien arteko fusioa.

Sustraiari ongi atxikiz rock gogorreko diskoa da "Hughes-Turner Projecti "Devil's road¯ abestiak irekitzen du Cda, erritmo finko eta indartsuaz gidatutako kanta. "Mystery of the heart¯ eta "Heaven 's missing an angel” dira bi abeslariak hakarka entzun ditzakeaun kanta bakarrak. Turner-en eskutik feeling haundiko balada da lehena. Hughes-ck, ordea, soul ikutuz janzten du higarrena.

Zirraragarria da bi munsiro hattek elkarrekin entzutea. aspaldian ez baikenuen horrelako ahotsik aditzen rock diskoetan. Dudarik gabe, rockzale orok entzun beharko lukeen lana dugu "Hughes-Tumer Project".

lon Gurrutxaga

P

## 10SU ZUBIAURRE

# ı TEIEbistatik gEhixEn gustatzE sortzEn dan girua da"

**AURPEGI EZAGUNA, EZTAP BAI. KALEAN MA1Z IKUSIKO DUZUE JOSU ZUBIAURRE. MONTAJEAN ARI DA LANEAN ENPRESA BATEAN, BEHIN IRRATI ETA TELEBISTAKO IKASKETAK UTZI ZITUENETIK. KALEAN EZEZIK TELEBISTAN ERE SARRITAN AGERTU DA JOSU AZKEN ALDIAN. BERRIKI, ETB 2K0 "DATE EL BOTE" PROGRAMAN AGERTU DA GALDEREI ERANTZUTEN. TELEBISTA BARRUTIK EZAGUTU DUEN GAZTE HONI SAIOETAN PARTE HARTZEKO DUEN ZALETASUN BITXI HONI BURUZ GALDETU DIOGU.**

Zein programatan egon zara?

Lehenengua "Kili-Kolo" programia izan zan, oin dala 4 urte-edo. "Esta es mi gente"-n bi bider urten naiz, baten gurasuen eta seme-alaben arteko erlaziueri buruz berbetan eta beste baten pareja bila. "Bexamela"-n ere egon nintzan.



Lehenao "Egin kontu" programan ere egondakua naiz: etxetik deitxu bihar zan programako musika taldiantzako izen bat emateko, nik ipinitxakua gustau jakuen eta 25.000 pezeta irabazi nitxuan. Azkenengo, "Date el bote"-n, oin dala bi aste bota zaben aurretik grabautakua. Azken honetan egon naiz gusturen, dirua irabazi genduala-ko.

Zer dela eta duzu hain gustuko telebistan agertzea?

Betidanik gustau izan jata mundu hau, behin animau nintzan saio batera jutera eta gerora beraiek deitxu izan diate ETBtik. Gainera irrati eta telebista eskola baten egon nintzan ikasten eta han kamaren erabilpena, interpretaziva... ikasi nitxuan. Gero, telebistan realidadian zela itxen daben ikusteko aukeria euki naban.

Zer da telebistatik gehien gustatu zaizuna?

Barruan sortzen dan girua. Presentadoriekin eta jende "famo-

# n jatana, saiuEtan

so" hoiekin berba itxia ere gustatzen jata. Telebistara jutiak lagun berrixak itxeko eta toki ezberdinetako jendia ezagutzeko aukeria ere eman dia.

**Gran Hermano, Estudio de actores, Operacin triunfo... modan dauden honetan. Inoiz pentsatu al duzu horrelako saioren baten parte hartzea?**

Gran Hermanora jutia pentsau izan dot inoiz, baina neretzat gehixegi dala uste dot. Jende guztiak Gran Hermanori buruz berba itxen dau eta horra juteko aukeratuz gero famia eta horrek atzetik dakan dana, ez jata gustatzen. "Esta es mi gente"-ra jun nintzanian herrixan ezautziaz gain kanpora jundakuan ere ezautu ninduten. Komentarixo batzuk ondo hartzen ditxut, beste batzuk ez hainbeste.

> "Gran Hermanora jutia pentsau izan dot inoiz, baina neretzat gehixegi da"

**Etxetik ikusten dugun bezatakoa al da telebista barrutik?**

Platuak etxetik ematen dabana baino txikixauak dia. Programia zuzenian izan edo grabauta izan oso diferentia da: Direktuan, esandakua momentuan urtetzen da telebistan eta bestian zeozer gaizki urtetzen bada mozteko aukeria dao, hori etxetik ez da igartzen baina alde haundixa dao, nerbixuetan batez ere.

**Berriki "Date el bote" saioan ikusi zaitugu. Zer moduzko esperientzia izan da?**

Aurretik ez nitxuan ezautzen gure taldeko beste mutilak baina ondo konpondu naiz eurekin eta nesken taldiakin ere. Gainera, gure taldeko batek irabazi zaban eta aurretik geratu ginan irabazitxako dirua danon artian banatzeko, eta diru piskat jasoko dotenez, pozik nao.

**Zer egingo duzu diruarekin?**

Galdera hori programako castingera jun nintzanian in ziaten eta txandal bat erosiko nabala erantzun naban. Baina gerora piska bat pentsau dot eta karneta ateratzia ondo egongo litzake, eta biaje bat ere ez legoke gaizki.

**Ingurukoek zer esaten dizute Telebistan ikusten zaituztenean?**

Etxekuek gehixao ez juteko esaten diate, ze beraiei ere itxen dizkiete neri buruzko komentarixuak kalian. Lagunek, berriz, animau itxen naute berriz juteko, beraiek ikusteko eta barre itxeko. "Esta es mi gente"-n agertu nintzan lehenengo aldixan etorri zian lau lagun publikora, baina "Buseo pareja"-rako ez zian atrebitxu, publikuan egonda ere agertzeko aukeria daualako.

**Gogoko al duzu zure burua telebistan ikustea?**

Ez, ez jata gustatzen. Grabau itxen ditxut programak, baina ikusten hasi eta ni pantailan agertzen naizenian telebista kentzen dot.

**Ba al duzu buruan beste programaren batera joatea?**

Oingoz ez. "Date el bote"-n egon ginan mutilon taldekuok komentau gendun ahal bazan politxa izango zala danok batera beste programa batera jutia, baina ez dogu ezer erabaki.

r a k u r

## ;`'GIZONA BERE BAKARDADEAW

Joxe Irazu Garmendia, Bernardo Atxaga aoitizenarekin ezagunagoa, Euskal Herriak sufritzen duen gatazka politikora hurhildu zen "Gizona here bakardadean" eleherriarekin. Ondoko arcatunentua aurkezten du egileak liburtian: Bartzelonan, munduko futbol txapelketa jokatzen den urtean, euskaldun batzuen ostatuan. etakide bi ezkutatuta daude eta polizia espainiarra haien atzetik dabil. Hortik aurrera, hainhat pasadizoren lekuko izango gara etakideak harrapatzen dituzten ala ez jakin arte.

Lihurua erraz irakurtzen den horietakoa da. Atxagak maisuki darama narrazioaren haria eta irakurlea erahat harrapatzen du. Idazle asteasuarraren prosa hoherenetik urrun egon arren, terderazko hitzez josita dagoelako, besteak beste), eta planteamentu ideologikoarekin ados egon arren ala ez, ez dago ukatzerik nohela hikaina dela honakoa. Bukaerara aerturatu ahala, gertaerak ziztu hizian pasatzen dira eta irakurleak "irentsi" egiten ditu orrialdeak, hainbesteraino bukaeran pena ematen duela liburua amaitzeak.




111111 5on Eugi

# Urasandiko F

I996an, Fundizioko Eraikuntza utzi zitzaien gaztEEi. Bost ziren bErtako Iokalak. Bata. Kokoraino taldeari Egokitu zitzaion. bEstE bat Zeharka taldeari, hirugarrEna Pneumari. laugarrEna Sexual Pervers taldeari Eta bostgarrEna Arima Beltza taldeari.
Bertan aritu dira Entsaiudan **SEi** urtEz, proiEkto ugari bultzatuz musikaren alorrEan. Gaur **Egun** bota Egin bEhar dutE Eraikuntza hau eta gaztEEk aurrera bEgiratzen dutE. Sasoi hartan bEzala, Ea orain ere zErbait datorkiEn zain. Egin gabE garEtu zaizkienak burutzeko irrikitan.

**FU ZIOKO LOKALETAT K PASATUTA 0 TALD AK**

Kokoteraino: Fundiziora heldu eta gutxira utzi zioten talde lanari. Azken lana, zera izan zen: Elgoibarren Kilometroak egin zirenean prestatu zen konpaktoan kanta bat grabatu zuten.

Pneuma: Hauek ere fundizioan hasi eta gutxira utzi zuten taldea, Sexual Perversen antzera.

Baina ez ziren denak izan taldeak utzi zituztenak. Jendea bildu egin zen lokal haietan eta formazio berriak sortu zituzten: Kokoteraino eta Pneuma taldeko partaide batzuk Dilisnia taldea sortu zuten, nahiz eta beraien historian kontzertu bakarra eman zuten.

Kokoteraino taldeko batzuk eta Sexual Pervers talde osoak, Mutilated Soul taldea sortu zuten.

Arima beltzak eta Zeharkak, formazio aldaketak izan arren, bere horretan diraute gaur egun ere, talde moduan.





likasiE txartEla,
AtErpEkidE
(albErgista) txartEla,
IrakasIE bcartda
GaztE txartda
bErtan egingo dizugu!

gazte informazioa

KULTUR ETXEKO 2, SOLAIRUA NAFARROA PLAZA, 3 « Tel. 943 741 461 - E-maila: elg.gzerbitzua@terra.es
Astelehena asteartea - osteguna - ostirala: 17:00etatik-20:00etara Larunbata: 10:00etatik - 14:00etara

# undizioa

## FUNDIZIOKO ,piNSIKAR I E Ki N

~L.PWG0+111

**Sutea**

Duela gutxi gora behera urte bi sutea izan zen fundizioan eta lokalak hirura murriztu zituzten. Beraz talde guztien artean konpondu beharra izan zuten hiru lokal haiek erabiltzeko. Antolaketa berria suposatu zuen egoera hark, tartean iadanik sei zirelako bertaratzen ziren taldeak.



*Arima Beltza taldea kontzerturako motorrak berotzen*

GAUR EGUN FUNDIZIOA ERAB1LTZEN DUTEN TALDEAK

**Lur Gor:** musika gogorra jotzen dute eta hauexek dira fundizioko musikorik gazteenak. Estraineko kontzertua, gaur, hilak 17, Deban eskainiko dute.

Aspaldian **Zeharka** zirenak. Proiektu berri batean murgildurik daude gaur egun eta Heavy estiloratz jo dute.

**Mutilated** eta **Dilisnia** taldeko partaideek Hellgoibar taldea sortu berri dute Havyh Metala landuz.

**Zer Ote.** Hauek orainxe hiru-lau hilabete heldu dira fundiziora ilusioz beterik, lehenago zuten tokian ez baitzeukaten nahi zutenean entsaiatzerik.



*"Mutilated Soul" Mendaron*

### Zer eskaini dizue fundizioak gaur arte?

Fundizioa egon aurretik taldeetan zebilen jendeari, aukera eman dio musikaren munduan jarraitzeko.
Seguruenik, fundizioa izan ez balitz, jende askok taldeak utzita edukiko lituzke eta beste asko musikaren munduan sartu barik egongo litzateke gaur.

### Zein da gaur egungo egoera?

Talde asko mugitzen da gaur bertan. Tokirik ez badaukazu ez dago zer eginik. Musikaren mundu kreatzaile honek ezinbestez eskatzen ditu espazioak.Musikoak elkar ezagutu, batak bestearengandik ikasi, kontaktuan egon, azken finean.

### Eta aurrerantzean zer?

Fundizioarekin gertatu zen bezala, espero dugu Udaletxeak lagundu egingo digula, esan bezala handia baita herri honetan musikarako joera. Pena handia litzateke lokal faltagatik, dagoen potentzialitatea ez aprobetxatzea. Gaur egunekoa eta etorriko dena. Han jende sortzaile asko dabil eta esan dugun moduan espazioak behar ditugu nahitaez.

### MUSIKA ZALEAK

